

DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta

Acta

UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

2013ko ABENDUAK 23a / 23 - DICIEMBRE - 2013

TOKIA / LUGAR: SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

EGUNA / FECHA: 23/12/2013

HASIERA / INICIO: 17:00 horas

BERTARATUAK / ASISTENTES:

PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):

Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):

1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
2. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
3. Alkateordea, Don Andoni Iruarizaga Amantegi jauna
4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra jauna
5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra **andrea**
6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiola garai jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)

Don Urdaspal Bolinaga Mallaviabarrena jauna
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra jauna
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE))

Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Fernando Castillo Rodríguez jauna
Doña Idoia Agorria Martínez andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)

Don Juan José Gastañazatorre Urizar jauna
Don Adrian Castro Cebrian jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (ARALAR)

Don Daniel Maeztu Pérez jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

EZ ETORTZEA JUSTIFIKATU DUTE/EXCUSAN SU ASISTENCIA

Don Juan Ignacio Martínez Orea jauna (EAJ/PNV)
Doña Deunorone Bizkarra Larrea andrea (Bildu)

KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES


Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

IZAERA / NATURALEZA: EZ OHIKOA / EXTRAORDINARIA

DEIALDIA / CONVOCATORIA: LEHENA / PRIMERA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabai-datzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

BAT.- DEIALDI HONEN PREMIAREN BERRESPENA.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Premiaren berrespena bozkatu beharra dago.

- Aldeko botoak: HAMABI, 7 Eusko Alderdi Jeltzalea, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: ZAZPI, 5 Bildu eta 2 Aralar.

Beraz, Udaleko Osoko Bilkurak, gehiengoaren botoekin, **berretsi egiten dut deialdi honen urgentzia.**

BI.- 2014KO AURREKONTU OROKORRAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA. (KONTU BEREZIEN INFORMAZIO BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2013KO ABENDUAREN 19KOA).

2014. urteari dagokion aurrekontu orokorra onartzeko espedientean Udalaren aurrekontua jasotzen da eta, baita ere, bere erakunde autonomoena: "Bartolomé Ertzilla" musika eskola, Udal Euskaltegia, Astarloa Kulturgintza eta Durango Kirolak; halaber, Udaleko sozietate publikoen aurrekontuak ere jasotzen dira "Durango Eraikitzen, S.A.U." eta "Landako Erakustazoka, S.A.".

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

UNO.- RATIFICACIÓN DE LA URGENCIA DE LA PRESENTE CONVOCATORIA.


* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): Primeramente se debe confirmar la urgencia mediante votación.

- Votos a favor: DOCE, 7 del Partido Nacionalista Vasco, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y dos del Partido Popular.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: SIETE, 5 de Bildu y 2 de Aralar.

En consecuencia, el Ayuntamiento Pleno, por mayoría, **ratifica la urgencia de la presente convocatoria.**

DOS.- PROPUESTA DE APROBACIÓN INICIAL DEL PRESUPUESTO GENERAL PARA EL EJERCICIO 2014. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS DE 19 DE DICIEMBRE DE 2013).

VISTO el expediente incoado para la aprobación del Presupuesto General correspondiente al ejercicio 2014, integrado por el Presupuesto del propio Ayuntamiento, de sus Organismos Autónomos Administrativos: Escuela de Música "Bartolomé Ertzilla", Euskaltegi Municipal, Astarloa Kulturgintza y Durango Kirolak, y de las Sociedades Públicas Municipales: "Durango Eraikitzen, S.A.U." y "Landako Erakustazoka, S.A.".



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Kontu batzorde bereziak aldeko irizpena eman zuen 2013ko abenduaren 19an, diktamenean honakoa jaso zelarik:

PREVIO dictamen mayoritariamente favorable de la Comisión Especial de Cuentas de 19 de Diciembre de 2013, del tenor literal siguiente:

"OSOKO ZUZENKETA

ENMIENDA A LA TOTALIDAD presentada independientemente por los grupos BILDU y ARALAR.

SARRERA:

Durangoko Udalean Gobernuan dagoen EAJ taldeak, 2013ko abenduan aurkeztu digu 2014ko aurrekontu proposamen zirriborroa. Gure Taldearen iritziz, zirriborro horrek hutsune nabarmenak ditu ikuspegi askotatik begiratuta. Berez, esaterako, ez du legediak eskatzen duen gutxienekoa betetzen; eta ez du eduki politikoaren ikuspegitik exijitu behar zaion gutxienekoa betetzen. Izan ere, EAJren aurrekontuek ez dute balio izango herritarrek dituzten benetako arazoak konpontzeko, hurrengo arrazoiengatik: alde batetik, ez dira diseinatu krisiari aurre egiteko tresna eraginkorra izateko, eta bestetik, irregulartasunez beteta dagoen kopuruen koadratze hutsa dira.

Beraz, herritarrek galdera jakina izango dute euren buruetan: zer irizpide politiko erabili ditu EAJk aurrekontuak erredaktatzeko? Galdera erretorikoa da, jakina delako proiektu politiko definiturik ez duen gobernuak ezin duela irizpide politikorik aplikatu aurrekontuak egiterako orduan. Gaztelera hutsean idatzita dagoen memoria irakurtzea horren adibide nahiko garbia dela iritzi diogu.

KOKAPEN SOZIEKONOMIKOA: DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKORIK EZ

Bizkaiko erakunde lokalen aurrekontuen inguruko 10/2003 arau foralak esaten du, aurrekontuaren edukia ezarri aurretik, hurrengo dokumentazioa izan behar dela:


INTRODUCCIÓN:

El Equipo de Gobierno del PNV en el Ayuntamiento de Durango ha presentado en 2013 el borrador de presupuestos de 2014. En opinión de nuestro Grupo, dicho borrador presenta carencias manifiestas desde distintos puntos de vista. Por ejemplo, no cumple el mínimo legal exigido; y tampoco cumple el mínimo que se le debe exigir desde el punto de vista del contenido político. Los presupuestos presentados por el PNV no sirven para solucionar los problemas de la ciudadanía puesto que, por un lado, no han sido diseñados como herramienta efectiva con la que hacer frente a la crisis y, por otro, no es más que un simple ajuste de cifras repleto de irregularidades.

La gente se preguntará cuál es el criterio político seguido por el PNV a la hora de redactar los presupuestos. Es una pregunta retórica, puesto que un gobierno que carece de proyecto político definido difícilmente puede aplicar criterios políticos a la hora de diseñar los presupuestos. No hay más que leer la memoria redactada únicamente en castellano para percatarse de ello.

SITUACIÓN SOCIOECONÓMICA: FALTA DE DIAGNÓSTICO SOCIOECONÓMICO

La Norma Foral presupuestaria 10/2003 establece que, previamente a establecer el contenido de los presupuestos, deberá presentarse la siguiente documentación:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Aurrekontuaren edukia eta aurrekoarekin erkatuta egin diren aldaketa nagusiak azaltzen dituen memoria.

Aldaketa nagusiak azaltzen dituen memoria horrez gain, aurrekontua egiteko kontuan hartu diren irizpideak ere azaltzea beharrezkoa da. EAJk aurkeztutako aurrekontuen proposameneko sasi memoria irakurtzen badugu, argi eta garbi ikusiko dugu ez gaudela memoria baten aurrean. Teknikari zehatz batek espedientea betetzeko derrigorrez egin behar duen dokumentu tekniko xumea izan daiteke; baina ez da, inondik inora, memoria egoki bat.

Aurrekontu proposamenak ez du testuinguru ekonomikoaren inguruan hausnarketarik egingen, beraz, ez da testuinguru ekonomiko konkretu baten aurrean Durangoko gizartean eragiteko aurkeztu den tresna ekonomikoa. Esan daiteke, aldiz, EAJren beharrizan politikoei erantzuten duen kontu-koadratze hutsala dela.

Izan ere, badaude kezkatzekoak diren datu ugari bizi dugun testuinguru sozioekonomikoan: langabezia geroz eta altuagoa da gazte eta helduetan; prestazioak behar dituzten pertsona kopurua hazten den heinean, prestazioen kopuruak murriztuz doaz; etxebizitza duina eskuratzeko eskubidea ere ez da inondik inora bermatzen; lanpostu gailerari aurrera egiteko politikarik ez da diseinatzen, nabarmena delako gazteek eta helduek geroz eta zailtasun handiagoak dituztela lanpostua topatzeko. Zerrenda luzea da, horiek datu batzuk dira.

Bestalde, lanpostu berriak sortzea lehentasun izan behar du. Baina horrek kalitatezko prestakuntzarekin harreman zuzena dauka. Durangon hutsune bat dago arlo horretan.


Memoria explicativa del contenido de los presupuestos y de las modificaciones más sustanciales relacionadas con los mismos.

Además de la memoria relativa a las modificaciones más sustanciales, es necesario presentar los criterios seguidos en la confección de los presupuestos. Si leemos la pseudo-memoria de presupuestos presentada por el PNV observamos que no se trata de una memoria en sí. Puede que sea un documento técnico sencillo realizado por un técnico determinado en aras a cumplimentar el expediente, pero de ninguna manera se trata de la memoria que unos presupuestos precisan.

La propuesta de presupuestos no realiza reflexión alguna en torno al contexto económico; por lo tanto, no se trata de una herramienta económica que tenga por objeto incidir en un determinado contexto económico del pueblo de Durango. No es más que un simple encaje de cifras que responde a las necesidades políticas del PNV.

En realidad, lo que tenemos son muchos datos preocupantes en el contexto socioeconómico en el que vivimos: el desempleo es cada vez mayor entre la población joven y adulta; aumenta el número de personas que precisan de prestaciones, mientras disminuye la cantidad destinada a las mismas; no se garantiza el derecho a una vivienda digna; no existe diseño político alguno destinado a reducir la pérdida de puestos de trabajo, cuando tanto jóvenes como adultos tienen cada vez más dificultades para acceder a un puesto de trabajo. La lista es bastante más larga, tan solo hemos citado algunos aspectos.

Pensamos que es prioritario crear nuevos puestos de trabajo, lo cual está relacionado directamente con la formación de calidad. Durango tiene una carencia manifiesta en este ámbito.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Demografiari dagokionean, azken 30 urteetan %34 hazi da biztanle kopurua, eta ez da horri aurre egiteko aurreikuspenik eta plan-gintzarik egon. Horrek ondorio nabarmenak ekarri ditu: auzoen definizio eza eta horrek sortzen duen ekipamendu egokiaren gabezia.

Azterketa sozioekonomikoaren jarraitzeko, euskararen erabilpenari dagokionean, immigrazioaren integrazioa bezain garrantzitsuak diren arloetan gabeziak egonkortu dira, hala nola, hain aberatsa den elkarte sarearen koordinazio falta.

Aipatutako guzti horren aurrean, argi dago zerbitzuetan eta beste azpiegituretan behar berriak sortuko direla. Eta aitzitik, aurrekontuaren memorian hitz bat bera ere ez da aipatzen horretaz. Ausartzen gara esatera EAJK errealitate birtual batetan kokatu duela aurrekontuen zirriborroa, euren buruetan bakarrik daukaten errealitatean, alegia, baina inori azaldu nahi ez diotena.

FORMA ALDETIK DAUDEN GABEZIAK: GARDENTASUN FALTA

Aitzitik, azaldu dugun moduan, irizpide politikorik barik egindako aurrekontu proposamen honen gabeziak ez dira soilik memoria baten faltara mugatzen. Inbertsioen eranskina aztertuta ere salagarria den egoera topatzen dugu: azken 5 urteotan 7 miloi € inguru xahutu ondoren zenbait obretan izan den gain-kostuengatik, 2014rako aurreikusten da 50.000 euroko diru-partida inbertsio-tarako, baina, zehaztu gabe zer inbertsio proposatzen den eta zer lotura duen Hirigintza Plan Orokorrearekin. Indefinizioa, alegia, gardentasun eza agerikoa da.

Susmatzen dugu gardentasun gabezia horrek zerbait ezkutatu nahi duela: ziurrenik,

En cuanto a la demografía, la población de Durango se ha incrementado en un 34% durante los últimos 30 años, pero se echa en falta previsión y planificación para encarar esta realidad. Las consecuencias de todo ello saltan a la vista: barrios carentes de definición y falta de equipamiento apropiado.


Siguiendo con el análisis socioeconómico, detectamos carencias en materias tan importantes como la utilización del euskera, o la integración de la población inmigrante. Así mismo, observamos falta de coordinación en la red de asociaciones de la Villa.

Tenemos claro que los servicios e infraestructuras existentes deberán contemplar nuevas necesidades. Pero en la memoria de presupuestos no se dice nada al respecto. Nos atrevemos a decir que el PNV ubica el borrador de presupuestos en una realidad virtual, una realidad que solo existe en su cerebro, pero que se niegan a explicarla a nadie.

CARENCIAS FORMALES: FALTA DE TRANSPARENCIA

Por contra, y tal y como hemos señalado, las carencias que percibimos en esta propuesta de presupuestos no se circunscriben a la inexistencia de la memoria que los presupuestos precisan. El anexo de inversiones, por ejemplo, presenta una realidad a todas luces denunciabile: tras derrochar alrededor de 7 millones de euros debido al sobre coste en varias obras durante los últimos 5 años, en los presupuestos de 2014 se contempla una partida de 50.000,00 euros para inversiones, pero sin precisar cuál es la inversión que se propone y si está relacionada con el Plan General de Ordenación Urbana. En definitiva, indefinición y falta de transparencia manifiestas.

Sospechamos que dicha falta de transparencia oculta alguna circunstancia: seguramente, la cantidad destinada a inversiones



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

inbertsiotara bideratuko den azken kopurua 50.000 euro baino askoz handiagoa izango da, aurreko urteetan gertatu den bezala. Geldikinak (aurreko urteetan gastatu gabe geratu den dirua) erabiliko dira horretarako, baina hori, aurrekontuen eztabaidan aipatu ere ez da egiten. Gaur egun, kreditu-erretentzioen kopurua 5 milioi eurokoa da, kopuru esanguratsua oso, aurrekontu eztabaidatik kanpo uzteko. Era berean, eta kasu honetan 2/2006 Lurzoru eta Etxebizitza legean jasota dagoena urratuz, ez da zehazten 2014 urtean zehar zeintzuk izango diren udal lurzoru ondarrerako bideratuko diren diru partidak. Besteak beste, 2014 urtean egikaritze unitate zehatz batzuk garatu ahal dira, adibidez Etxezurioste, Forjanor edo Faustegoiena; bertan, udal eskubideak 5 miloi eurotik gorakoak dira. Baina horretaz ere, ezer ez da agertzen aurrekontu proposamenean.

PARTE HARTZEA: EZ POLITIKOA, EZTA SOZIALA ERE.

Edukietara joanda, udal gobernuak aurkeztu dituen aurrekontuei hurrengo izenburua jarri ahal diegu: "Guztia herriarentzat; baina herriari bizkarra emanez". Udal gobernuak argi izan beharko luke, aurrekontuak, udaletxe batek egiten duen gastua kudeatzeko tresna direla; baina horrez gain, eta arlo politikotik helduta, Durangoko udal gobernuak gura duen herri ereduaren inguruan eztabaida kokatzeko ere balio dute. Eta kasu honetan, EAJk argi eta garbi utzi digu zein den bere eredu: demokrazia ordezkatzailerako muturre-raino eroaten duena, hau da, "zuk bozka ematen didazu eta 4 urtetan ez dizut ezertarako galdetzen".


Udal gobernuak orain dela 2 urte aurrekontu parte-hartzaileak egiteko metodologia jakina aurkeztu zigun. EHUKo Parte Hartuz-ek lan talde bat egin ostean, aurretik egindako azterketa bat hartu eta eguneratu zuten, eta proposamena atera zen. Baina proposamen hori udaletxeko kaxoiren baten egongo da ondo gordeta, gobernu taldeak betetzen ez

superará con creces los 50.000,00 euros, al igual que ha ocurrido en los años precedentes. Y para ello se utilizará el remanente existente de años anteriores, aunque no se hace mención alguna a este hecho. En la actualidad, las retenciones de crédito ascienden a 5 millones de euros, una cantidad considerable que debería ser tenida en cuenta en el debate presupuestario. Así mismo, se vulnera lo recogido en la Ley de Suelo 2/2006, puesto que no se especifican qué cantidades se destinarán al patrimonio municipal de suelo. En 2014, por ejemplo, pueden desarrollarse varias unidades de ejecución: Etxezurioste, Forjanor y Faustegoiena. Los derechos municipales por dichas unidades están por encima de los 5 millones de euros. Pero tampoco aparece nada al respecto en la propuesta de presupuestos.

PARTICIPACIÓN: NI POLÍTICA NI SOCIAL

En cuanto al contenido, el titular más apropiado para los presupuestos presentados es el siguiente: "Todo para el pueblo, pero a espaldas de él". El equipo de gobierno debería tener claro que los presupuestos son la herramienta con la que cuenta el Ayuntamiento para gestionar el gasto; pero, además de ello, deberían servir para situar el debate en las coordenadas del modelo de pueblo que el equipo de gobierno desea para Durango. En este sentido, el PNV deja claro cuál es su modelo: un modelo en el que se lleva hasta el extremo el concepto de democracia representativa, esto es, "tú nos votas y en los siguientes 4 años no recabo tu opinión".

El equipo de gobierno presentó hace 2 años una metodología concreta para la confección de unos presupuestos participativos. El grupo Parte Hartuz de la UPV constituyó un grupo de trabajo: tomó un estudio realizado anteriormente, lo actualizó y presentó una propuesta. Pero dicha propuesta estará a buen resguardo en algún cajón del



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

*dituen akordioak gordetzeko balio duen karpeta*ren alboan. Erabilitako dirua zakarrontzira bota zuten eta txostena kaxoian sartu zuten.

EH Bildurentzat parte-hartzea politika ulertzeko eta egiteko modua da, are gehiago udal mailan. Eta ideia hori are eta garrantzitsuagoa da gaur egungo testuinguruan, diru sarrerak murriztu egin direlako eta gastuaren kudeaketa egiterakoan iritzi eta ikuspegi ezberdinak izan behar direlako. Horregatik, gaur egun egiten ditugun inbertsioak ondo pentsatu behar ditugu. Eta helburu horrekin, oinarritzkoa da herritarrei galdetzea non inbertitu gura duten, inbertsio horiek gizartearen babesa izan dezaten.

EREDU EZBERDINA: GUK BADA KIGU ZE DURANGO NAHI DUGUN. ETA ZUEK?

Zerbitzu-herria da Durango. Baieztapen hau esaldi borobil bat baino gehiago izan behar harko litzateke. Zerbitzu arloan enplegua etengabe suntsitzen ari denean, udalak, ETT bat bezala jardun beharrean 6 hilabetetako lanpostuak sustatzen, eskumenak dituen hainbat arlotan epe ertain luzerako politika estrukturalak garatu behar ditu, zerbitzu herri honetan enplegua egonkortzeko, kohezio soziala helburutzat hartuta.

Adibide praktikoak jartzearen, galdera batzuk egiten ditugu:

- *Lehentasunezkoagoa da, iturriak konpontzea, errotondak egitea, saihebi-deak; edo kirol ikasketa homologatuak ematen dituen eskola bakarrarentzako, Kirolenerentzako, alegia, azpiegitura duina diseinatu ahal izateko diru hori bideratzea?*

Testuinguru sozioekonomiko honetan, etxebizitza bat izateko ahalmenik gabe geratzen dira pertsona asko. Ez bakarrik etxebizitza

Ayuntamiento, junto con la carpeta en la que se guardan los acuerdos incumplidos por el equipo de gobierno. El dinero gastado fue directamente a la papelería, y el informe, al cajón.

Para EH Bildu la participación es una manera de entender y hacer política, más aún a nivel municipal. Y esta idea es todavía más importante en el contexto en que nos encontramos: los ingresos han disminuido y existen diferentes puntos de vista a la hora de gestionar el gasto. Por ello, debemos pensar muy bien qué tipo de inversiones deseamos realizar. Y es aquí donde cobra relevancia el que se pregunte a la ciudadanía dónde quiere gastar, puesto que solo así gozarán las inversiones del favor de la sociedad.


UN MODELO DIFERENTE: NOSOTROS SABEMOS QUÉ MODELO QUEREMOS, ¿Y VOSOTROS?

Durango es un pueblo de servicios. Pero esta afirmación debería ser algo más que una frase al uso. El sector de servicios está constantemente perdiendo puestos de trabajo, y el Ayuntamiento, en lugar de actuar como una ETT fomentando puestos de trabajo para 6 meses, debe desarrollar políticas estructurales a medio y largo plazo en los ámbitos en los que tiene competencia con el fin de estabilizar el empleo en este pueblo de servicios y afianzar, de este modo, su cohesión social.

Se nos ocurren las siguientes preguntas:

- *¿Es prioritario arreglar fuentes, hacer rotondas, circunvalaciones... o es preferible destinar dicho dinero al diseño de una infraestructura digna para la única escuela que imparte cursos de enseñanza deportiva homologada, es decir, para Kirolene?*

En este contexto económico son muchas las personas que no pueden acceder a una



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

bat erosteko ahalmenik gabe. Alokairuan ere etxebizitza bat izateko ahalmenik gabe dago gaur egun jende asko. Beste galdera bat egiten dugu ildo horretatik:

- *Udal ondarearen baitan dauden lurzoruak erabili behar ditugu, jabetzan etxebizitzak eskaintzen jarraitzeko; edo, gaur egun hutsik dauden etxebizitzak alokairuaren bitartez merkaturatzeko? Adibidez, zaharkitutako etxebizitzak birgaitzerako diru funts bat erabili genezake, birgaitzeak diruz lagundu, beti ere, alokairura bideratzen badira.*

EH Bilduren hausnarketa da, beti, baina are gehiago gaur egungo egoera ekonomikoan, edozein inbertsioren oinarrian, babes sozialak presente egon behar duela. Ez bakarrik babes politikoak. Eta babes hori ahalik eta handiena izan behar da, diru sarrerak murriztu diren honetan gizartearen iritzia eta beharrianak kontuan izateko.

Hori azaldu ostean, agerian utzi gura dugu udal gobernuak ez diola bakarrik herritarren parte-hartzeari muzin egiten. Parte-hartze politikoari ateak irekitzearen aurka dago ere, 2013ko maiatzean, gai honetaz berba egiteko batzartu ginen EAJrekin, bigarren bilera baterako deituko zigutela esan zigutelarik. 2013ko abenduan oraindik ez dugu bilera proposamena egiteko deirik jaso.

*Goian aipatu ditugun arrazoiek **aurrekontuak itzultzea eskatzera eroaten gaituzte**, eta horrekin lotuta, udal gobernuari eskatzen diogu herritarren parte-hartzea bermatzeko konpromisoa hartu dezala. Horrez gain, exijitzen diogu talde politikoei informazioa erraztea, gardentasunaren izenean.*

Hori esan ostean, gaineratu behar dugu prest gaudela zuzenketa partzialak aurkeztera, eta bide horretatik, EAJren aurrekon-

vivienda. Pero son también muchas la que tampoco pueden hacerse con una vivienda en alquiler. Por ello, ¿cuál es la mejor opción?


- *¿Disponer de los terrenos pertenecientes al patrimonio municipal para seguir ofertando viviendas en propiedad o sacar al mercado las viviendas vacías a través del alquiler de las mismas? Podríamos disponer de una cantidad para habilitar las viviendas un tanto deterioradas. Se subvencionaría la rehabilitación de las mismas siempre y cuando fueran destinadas a alquiler.*

Es una reflexión que hacemos desde EH Bildu, porque pensamos que en la realidad económica en la que estamos inmersos debemos tener muy presente el amparo social, no solo el político. Es necesario que apoyemos más a los desfavorecidos. Debemos escuchar a la gente y hacer frente a sus necesidades.

Una vez explicado esto, queremos dejar claro que el equipo de gobierno da la espalda a la participación ciudadana. Está en contra de abrir las puertas a la participación en el proceso político. En mayo de 2013, quedamos con el PNV para hablar de esta cuestión, y nos comentaron que nos convocarían a una segunda reunión. Estamos en diciembre y todavía no hemos recibido invitación alguna.

*Por todo lo expuesto, **solicitamos la devolución de los presupuestos**, y pedimos también al equipo de gobierno que se comprometa a garantizar la participación ciudadana. Además, y en nombre de la transparencia, le exigimos que facilite la información al resto de grupos políticos.*

Dicho esto, añadimos que estamos dispuestos a presentar enmiendas parciales y a confrontar los presupuestos del PNV con



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

tuekin gure eredu propioa aurrez-aurre jartzera. Gure zuzenketak hurrengo ildotik joko lukete: zerbitzu herria izanda, izaera hori bermatzeko diru partidak bideratzea, zentzu horretan, Durango erakargarria izan dadin eta Durango barrua kohesionatzeko. Udal ondarea etxebizitzetara bideratzen dela bermatzea.

Horrez gain, publikotasunaren aldeko apustu garbia egingo genuke, RPTak ezartzen dituen lanpostu publikoak egonkortuz eta zuzenean izendatzen diren lanpostuak ezabatuz. Era berean, udal gobernuak proposatzen duen soldaten izoztearen aurrean, soldata igoerak egiteko beharrezkoak diren partidak jarriko genituzke.

EAJk duen herri ereduaren aurrean, EH Bilduren eredu bat da. Prest gaude eztabaidarako eta aurrekontuen debate batean gure proposamena egiteko, baina horretarako, herritarren parte hartzeari dagokionean eta parte hartze politikoari dagokionean goian aipatu ditugun baldintzak bete beharko lirateke.

nuestro modelo. Nuestras enmiendas irían en la siguiente dirección: como pueblo de servicio que somos, deberán destinarse partidas para afianzar dicha naturaleza y conseguir un Durango atractivo y cohesionado. Pensamos también que el patrimonio municipal debe destinarse a vivienda.

Además, apostamos claramente a favor del empleo público a través de la estabilidad de los puestos de trabajo de la RPT y eliminando los puestos de designación directa. Así mismo, frente a la congelación de sueldos propuesta por el equipo de gobierno, proponemos que se establezcan las partidas necesarias destinadas al aumento de sueldo.

El modelo de EH Bildu difiere de el que tiene el PNV. Estamos dispuestos a presentar nuestra propuesta en un debate presupuestario, pero para ello deberán cumplirse las condiciones arriba expuestas en relación a la participación ciudadana y política.

ZUZENKETAK (PP) ENMIENDAS (PP)

1. ZUZENKETA: GEHITZEA

Partidaren izena: Bitartekaritza-zerbitzua gestoria eta aholkularitzekin.

Zenbatekoa: 20.000 €.

Zergatia: Hitzarmenak egin nahi dira udalerriko gestoria eta aholkularitzekin kaleratze egoeran dauden herritarrei aholkuak emateko. Zerbitzuen gaineko diru-kopuruak udalak ordainduko ditu aldez aurretiko hitzartutako tarifak aintzat hartuta.

2. ZUZENKETA: GEHITZEA

Partidaren izena Bitartekaritza-zerbitzua gestoria eta aholkularitzekin.

ENMIENDA Nº 1 DE ADICIÓN


Denominación de la Partida: Servicio de intermediación con gestorías/asesorías.

Importe: 20.000 €.

Justificación: Se trata de conveniar con las gestorías/asesorías del municipio, un asesoramiento experto para los vecinos/as de Durango que puedan encontrarse en situación de desahucio. Los importes de los servicios realizados serían abonados por el Ayuntamiento según las tarifas conveniadas.

ENMIENDA Nº 2 DE ADICIÓN

Denominación de la Partida Servicio de intermediación alquiler viviendas.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Zenbatekoa: 20.000 €.

Zergatia: Hitzarmenak egin nahi dira udalerriko gestoria eta aholkularitzekin kaleratze egoeran dauden herritarrei aholkuak emateko. Zerbitzuen gaineko diru-kopuruak udalak ordainduko ditu aldez aurretiko hitzartutako tarifak aintzat hartuta.

3. ZUZENKETA: GEHITZEA

Partidaren izena: Nagusientzako udal plana

Zenbatekoa: 25.000 €.

Zergatia: Politika integrala diseinatzea gure nagusientzat.

4. ZUZENKETA: GEHITZEA

Partidaren izena: Tokiko garapen-saila eratzea.

Zenbatekoa: 30.000 €.

Zergatia: Durangon inbertitzeko gai diren sektore ekonomiko eta produktibo nagusiak detektatzea, eta lanpostu berriak sustatzea.

5. ZUZENKETA: GEHITZEA

Partidaren izena: Ekonomia sustapenerako plana.

Zenbatekoa: 30.000 €.

Zergatia: Tokiko garapen-saila arduratuko litzateke Durangoko jarduera ekonomikoa sustatzeaz.

6. ZUZENKETA: GEHITZEA

Partidaren izena: Diru-laguntzak udalerriko langabetuak kontratatzen dituzten enpresei.

Zenbatekoa:

Importe: 20.000 €.

Justificación: Se trata de poner a disposición de las familias que se hayan quedado sin vivienda como consecuencia de una ejecución hipotecaria o impago de alquileres, puedan disponer de viviendas cuyos propietarios no las tengan en el mercado por la incertidumbre del cobro del alquiler. El Ayuntamiento, con unos precios previamente pactados con la propiedad, garantizaría el cobro de las cantidades que resultasen impagadas, y el estado de conservación de la propiedad, tal y como fue entregada.

ENMIENDA Nº 3 DE ADICIÓN

Denominación de la Partida: Plan municipal para mayores.

Importe: 25.000 €.

Justificación: Diseñar Una política integral para nuestros mayores.

ENMIENDA Nº 4 DE ADICIÓN

Denominación de la Partida: Creación del Área de Desarrollo Local.

Importe: 30.000 €.

Justificación: Detección de los principales sectores económicos y productivos susceptibles de invertir en Durango y proporcionar nuevos puestos de trabajo.

ENMIENDA Nº 5 DE ADICIÓN

Denominación de la Partida: Plan de Promoción Económica.


Importe: 30.000 €.

Justificación: Sería el Área de Desarrollo Local la encargada de impulsar la actividad económica de Durango.

ENMIENDA Nº 6 DE ADICIÓN

Denominación de la Partida: Ayudas a las empresas para la contratación de desempleados/das del municipio.

Importe:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Zergatia: Diru-laguntzak kontratuak egiten zaizkien udalerriko langabetuen gizarte segurantzaren kuotetarako, gure eskualdeko beste udalerrietan egiten den eran.

7. ZUZENKETA: GEHITZEA

Partidaren izena: Enplegua sustatzea.

Zenbatekoa: 30.000 €.

Zergatia: 2011. urteko aurrekontuetan zegoen dotazio bera mantentzea.

Justificación: Subvencionar las cuotas patronales de la Seguridad Social correspondientes a las personas contratadas que sean desempleadas del municipio, de forma similar a como se hace en otros municipios de nuestro entorno.

ENMIENDA Nº 7 DE ADICIÓN

Denominación de la Partida: Promoción comercio.

Importe: 30.000 €.

Justificación: Mantener la dotación presupuestaria correspondiente similar a la del presupuesto de 2011.

ZUZENKETAK (PSE-PSOE) ENMIENDAS (PSE-PSOE)

1. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 50.000 €.

Deskripzioa: Hutsik dauden lokalen inbentarioa egitea, artekaritza, prezio markatu-tasatua, aseguru-etxea, prestakuntza eta enplegu politikak.

2. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 50.000 €.

Deskripzioa: Hutsik dauden lokalen inbentarioa egitea, artekaritza, prezio markatu-tasatua, aseguru-etxea, prestakuntza eta enplegu politikak.

3. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 200.000 €.

Deskripzioa: Lan-brigada prestakuntza eta enplegu politikak.

4. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 50.000 €.

Deskripzioa: Ondare historiko eta arkitektonikoaren inbentarioa egitea; halaber, zahar-berritze premiak aztertzea prestakuntza eta enplegu politikak.

ENMIENDA Nº 1 DE ADICIÓN

Importe: 50.000 €.

Descripción: Realizar inventario de locales vacíos, intermediación, precio marcado-tasado, aseguradora (continente e impagos). **Políticas de Formación y empleo.**

ENMIENDA Nº 2 DE ADICIÓN

Importe: 50.000 €.

Descripción: Realizar inventario de viviendas vacías, intermediación, precio marcado-tasado, aseguradora (continente e impagos) **políticas de formación y empleo.**

ENMIENDA Nº 3 DE ADICIÓN


Importe: 200.000 €.

Descripción: Brigada de obras **políticas de formación y empleo.**

ENMIENDA Nº 4 DE ADICIÓN

Importe: 50.000 €.

Descripción: Realizar un inventario detallado del patrimonio histórico y arquitectónico, así como de su estado de conservación y necesidades de restauración **políticas de formación y empleo.**



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta

Acta

5. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 270.000 €.

Deskripzioa: Lotura urki kaletik ramón rubial kaleraino (montorretako errotonda berria) 100 m-ko luzera 15m-ko sekkzioa.

6. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 300.000 €.

Deskripzioa: Antso estegiz zumardiaren zaharberritzea (1. Fasea)

7. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 3.000.000 €.

Deskripzioa: San faustoko kaleetako estolderiak zaharberritzea (ebaristo buztinza, bernardo gabiola...).

8. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 32.000 €.

Deskripzioa: Gizarte-larrialdiko pisuen ekipamendua (3 piso 12.500 + 12.500 + 7000).

9. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa:

Deskripzioa: Durango eraikitzen kanpaina alokairu sozialeko pisuetarako (bizigune).

10. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 80.000 €.

Deskripzioa: Frai juan zumarraga eta landako kaleak argiztatzea.

11. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 136.000 €.

Deskripzioa: Aurrekontuen %0,5a etxe-kaleratzeetara zuzentzea.

ENMIENDA Nº 5 DE ADICIÓN

Importe: 270.000 €.

Descripción: Unión desde la calle urki hasta Ramón Rubial (la nueva rotonda de montorreta) 100 m de longitud 15m de sección.

ENMIENDA Nº 6 DE ADICIÓN

Importe: 300.000 €.

Descripción: Rehabilitación de antso estegiz zumardia (1º fase)

ENMIENDA Nº 7 DE ADICIÓN

Importe: 3.000.000 €.

Descripción: Rehabilitación de las calles de san fausto (ebaristo buztinza, bernardo gabiola...) de saneamientos, etc.

ENMIENDA Nº 8 DE ADICIÓN

Importe: 32.000 €.

Descripción: Equipamiento pisos de emergencia social (3 pisos 12.500 + 12.500 + 7000).

ENMIENDA Nº 9 DE ADICIÓN

Importe:

Descripción: Campaña durango eraikitzen captación de pisos para alquiler social (bizigune).

ENMIENDA Nº 10 DE ADICIÓN


Importe: 80.000 €.

Descripción: Iluminación (frai juan zumarraga – landako).

ENMIENDA Nº 11 DE ADICIÓN

Importe: 136.600 €.

Descripción: 0,5% del presupuesto destinarlo para ayudas a desahucios.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta

Acta

12. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 5.000 €.

Deskripzioa: Hitzarmena stop accidentes elkartearekin (convive-elkarbizi hitzarmena).

13. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 20.000 €.

Deskripzioa: Hitzarmena mugarra triatloi taldearekin (5000 € + 15.000 €).

14. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 12.000 €.

Deskripzioa: Dirulaguntza durangoko komertzioetan eskola-materiala eskuratzeko.

15. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 40.250 €

Deskripzioa: 322.000 € 8 eta 4 urteetarako, administrazio elektronikoa martxan jartzeko.

16. ZUZENKETA: GEHITZEA

Zenbatekoa: 150.000 €.

Deskripzioa: Udako igerilekuen konponketa-lanak (ur-galerak).

Batzorde honetako alderdi politiko bakoitzak aurrekontu-proiektuari egindako zuzenketen azalpena eta defentsa bukatu ondoren.

Presidenteak aurrekontuen zirriborro-proposamena bozketara eramaten du; Osoko Bilkuran alderdi politiko bakoitzeko bozeramailek zuzenketen defentsa egingo dute.

Emaita:

ENMIENDA Nº 12 DE ADICIÓN

Importe: 5.000 €.

Descripción: Convenio con stop accidentes (campaña convive-elkarbizi).

ENMIENDA Nº 13 DE MODIFICACIÓN

Importe: 20.000 €

Descripción: Convenio mugarra triatloi taldea (5000 € + 15.000 €).

ENMIENDA Nº 14 DE ADICIÓN

Importe: 12.000 €.

Descripción: Subvención para compra de material escolar en comercios de Durango.

ENMIENDA Nº 15 DE ADICIÓN

Importe: 40.250 €

Descripción: 322.000 € para 8 años y 4 años de puesta en marcha administración electrónica.

ENMIENDA Nº 16 DE ADICIÓN


Importe: 150.000 €.

Descripción: Reparación de las piscinas de verano (pérdidas de agua).

Una vez finalizada la exposición y defensa de las enmiendas presentadas al proyecto de presupuestos por cada uno de los grupos políticos componentes de esta Comisión.

La Presidente propone proceder a la votación de la propuesta del borrador de los presupuestos en su conjunto, manteniéndose la defensa de las enmiendas por cada uno de los portavoces de los grupos en el pleno de la Corporación.

Dando el siguiente resultado:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

ALDEKO BOTOAK VOTOS A FAVOR	4	EAJ-PNV (4).
KONTRAKO BOTOAK VOTOS EN CONTRA		
ABSTENTZIOAK ABSTENCIONES	5	PSE-EE (PSOE) (2), BILDU (1), ARALAR (1) y PP (1).

Beraz, Kontu Berezien batzordeak Osoko Bilkurara eramango du 2014ko aurrekontu-proiektua onartzeko aldeko irizpena."

En su vista esta Comisión Especial de Cuentas eleva al Ayuntamiento Pleno, dictamen favorable de aprobación del Proyecto de Presupuestos para el año 2014."

* Kontuhartzaile ordea **Velasco Perez andrea**: 2014ko aurrekontuen zirriborroa alkate andreak aurkeztu zuen 2013ko abenduaren 2ko Kontu batzorde Berezian. Zuzenketak aurkezteko epea abenduaren 16ra arte luzatu zen; abenduaren 16 eta 18an zuzenketak aztertu ziren eta abenduaren 19ko kontu batzorde bereziak irizpena hartu zuen Osoko bilkurara eramateko.

Bilduk eta Aralarrek osotasunerako emendakin bat aurkeztu zuen; Alderdi Popularrak 7 zuzenketa partzial eta Alderdi Sozialistak 16 zuzenketa partzial.

Aurrekontua prestatu da kontuan izanda udalari ofizialki jakinarazi zaion Udal Kutzaren 2014ko diru-sarreraren arabera. Udalari dagokionez gastuen zenbateko osoa 27.319.519 eurokoa da; hauetatik 26.379.639,04 euro ohiko gastuak dira eta 939.879,96 euro kapital gastuak. Ohiko diru-sarreraren aurreikuspena 27.289.519 eurokoa da eta 30.000 euro kapitaleko diru-sarrera. Aurrekontu bateratuaren kopurua 30.015.236,63 eurokoa da. Gastuen partidetan edozein aldaketa egin nahi izanez gero derrigorrez finantzaketa modua adierazi behar dela gogorarazi nahi dizuegu.


* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Kontu-hartzaile andreak esandakoari gehitu behar diot, 1. kapituluari, pertsonalarena, 9,2 milioi euro jasotzen direla; 2. kapituluari, hau da, ohiko gastuaren kapituluari, 8,9 milioi euro; eta 4. kapituluari, hau da, ohiko transferentzien kapituluari, 8,1 milioi. Orohar pertsonalari edo langileei dagokienez, ez da egon atzera pausorik.

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Perez**: La señora alcaldesa, en la Comisión Especial de Cuentas del 2 de diciembre de 2013, presentó el borrador de los presupuestos de 2014. El plazo para la presentación de enmiendas se prolongó hasta el 16 de diciembre, tras lo cual, los días 16 y 18 de este mismo mes, se procedió a analizar las enmiendas presentadas, y la Comisión Especial de Cuentas del 19 de diciembre emitió su dictamen, para elevarlo al Pleno del Ayuntamiento.

Bildu y Aralar presentaron una enmienda a la totalidad; el Partido Popular 7 enmiendas parciales y el Partido Socialista otras 16 enmiendas parciales.

El presupuesto ha sido proyectado conforme a los ingresos de arcas municipales para 2014, notificados oficialmente al Ayuntamiento. En lo que respecta al Ayuntamiento, el valor total del gasto es de 27.319.519 euros, de los cuales 26.379.639,04 euros corresponden al gasto corriente y 939.879,96 al gasto de capital. La previsión de ingresos corrientes suma un total de 27.289.519 euros, y la de ingresos de capital 30.000 euros, y el presupuesto consolidado asciende a un total de 30.015.236,63 euros. En el caso de que se desee efectuar cualquier cambio en las partidas de gastos, os recuerdo que se debe explicitar obligatoriamente su modo de financiación.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: A la información aportada por la señora Interventora quisiera añadir que el primer capítulo, el de personal, asciende a 9,2 millones de euros; el segundo capítulo, el del gasto corriente, se ha dotado con 8,9 millones de euros, y, finalmente, el cuarto capítulo, el de transferencias corrientes, asciende a 8,1 millones. En general, en lo que respecta al personal o a la plantilla no se ha producido ninguna involución.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Bigarren kapituluan, hainbat bider aipatu den moduan, gehitze txiki bat egon da KPlaren arabera. Dakigunez bertan jasotzen dira Udal honek ordaindu behar dituen kontratu guztiak.

Eta laugarren kapituluan, ohiko transferentzien kapituluan, jasotzen dira, alde batetik, gure erakunde autonomoi egin beharreko ekarpena, bere hartan geratzen dena eta, bestalde, diru-laguntzak eta hitzarmenak, alegia, gure herriko elkarteekin sinatutako hitzarmenak. Hauek guztiak ere mantendu egin dira.

Esan bezala, uste dugu guztiz lotuta dagoela aurrekontu proposamen hau zuhurtziara, seriotasunera. Ustezko sarrerak kontuan hartzen ditu eta gastua, oso-osorik, sarrerei lotuta dago.

Beraz, zuzenean sartuko gara txandetan. Gogorazi nahi dizuet, bozeramaleen batzordean esan nuen moduan, txanda bi egongo direla aurrekontuaren inguruan hitz egiteko. Lehenengo txanda 10 minutukoa izango da eta bigarrena 5 minutukoa, eta luze ez joateko kontrolatu egingo ditut txandak.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Dakizuenetz, osoko zuzenketa aurkeztu diogu aurrekontu-proposamen honi. Lehenengo eta behin guretzat aurrekontu-proposamen hau onartzea arduragabekeria galanta da: aurrekontuek irregulartasun pila bat daukate eta azken finean zifra kuadratze hutsa baino ez da. Arduragabekeria esaten dugu, alde batetik, legediak ezarritako hainbat baldintza ez dutelako betetzen, formaren aldetik, baina era berean, edukietara baldin bagoaz, tresna ekonomiko-politiko bezala, guretzat ez dute balio gaur egungo durangarrek pairatzen dituzten arazo nagusiak konpontzeko.

Egia da aurrekontuak ez direla tresna bakarra durangarrek dituzten arazoak konpontzeko, baina badira tresna garrantzitsu bat, kontuan izanik 30 milioi inguru mugitzen direla.

Esaten dugunean ez dutela betetzen legedian ezarritako hainbat baldintza saiatuko naiz adibide batzuk jartzen.

En el segundo capítulo, tal y como se ha mencionado en tantas ocasiones, se ha efectuado un pequeño incremento, a tenor del IPC, y, como todos sabemos, en ese apartado se incluyen todos los contratos que debe sufragar este ayuntamiento.

Finalmente, el cuarto capítulo, el de transferencias corrientes, contiene, por un lado, la aportación que se efectúa a los distintos organismos autónomos, que queda tal cual estaba, y, por otro, las subvenciones y los convenios firmados con las diferentes asociaciones de nuestro municipio, todo lo cual se ha mantenido.


Todo ello, como decía, como resultado de un ejercicio de sensatez y seriedad, en el que se han tenido en cuenta los ingresos previstos, en virtud de los cuales se ha establecido el gasto estimado.

Dicho lo cual, se abre el turno de intervención. Quisiera recordarles, tal y como expliqué durante la Junta de Portavoces, que en este debate sobre los presupuestos dispondremos de dos turnos, el primero de los cuales será de 10 minutos y el segundo de 5, tiempo que será controlado, para que el debate no se prologue más de lo debido.

* **Concejal Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Como todos ustedes saben, hemos presentado una enmienda de totalidad ante esta propuesta de presupuestos; en primer término, porque para nosotros, por lo menos, aprobar esta propuesta de presupuestos supondría un auténtico acto de imprudencia, habida cuenta de las múltiples irregularidades de estos presupuestos, que, a fin de cuentas, no son más que un simple ejercicio de encuadre de cifras. Y decimos un acto de imprudencia, puesto que, en primer lugar, esta propuesta no cumple ciertas condiciones formales, pero es que, además, tampoco pensamos que, en lo que respecta al contenido, como instrumento económico y político, estos presupuestos puedan valer para dar respuesta a los principales problemas que sufre nuestra ciudadanía.

Es cierto que los presupuestos no son el único medio del que se dispone para enmendar los problemas de la ciudadanía, pero sí que suponen un instrumento importante, dado que mueven unos 30 millones de euros.

A continuación intentaré exponer mediante unos ejemplos por qué consideramos que no cumplen lo establecido en la ley.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Lehenengo eta behin aurrekontuek ez dute betetzen gastuen eta diru-sarreraren oreka. Guk ez dugu topatzen gastuetan 2010ean onartutako 3.563.230,96 euroko kreditu baten amortizazioa. 2010ean onartu zen kreditu hori eta ez da erabili; aurten tokatzen da kreditu horren zati bat bueltatzea, konkretuki 417.000 euro, eta hori ez da inondik inora agertzen gastuetan eta uste dugu, kontutan izanik 2010ean onartua izan zela diru-sarreretan, zati hori gastuetan egon beharko litzateke, baina ez dago jasota.

Aurrekontua egiteko lehenengo jaso dira zein gastu izango ditugun eta horren arabera jarri dira diru-sarrerak. Diru-sarrerak aipatzen diren orrira joaten bagara ikusiko dugu, adibidez, zerga zuzenak %5,65 igoko direla. Espero genuen azalpenen bat jasotzea honen inguruan baina ez da horrela izan, kopuru bat jarri da eta kito. Baina datu batzuk badaude jakiteko hori horrela izango den edo ez jakiteko.

Barikuan bidali ziguten 2012ko likidazioaren txostena eta bertan ikusi ahal izan dugu, 2008-2012 urte-tartea arautzerako orduan, zerga zuzenak zenbat igo diren epe horretan, zehazki, 2011-2012an, %2,11 igo dira. Zergatik zerga zuzenak %5,65 igoko dira kontuan izanik %2a igo ditugula zergak eta tasak aurten? Zer dela eta %2tik %5era arteko tarte hori? Non dago diferentzia? Nik, gutxienez, azalpen bat beharko nuke.

Zer esanik ez taseen inguruan, banatu diguten txostenaren arabera, tasak %3,80 igoko dira 2013an. 2012ko likidazioa ikusten baldin badugu 2011tik 2012ra %5,94 jaitsi ziren tasak. Zergatik orain, testuinguru ekonomiko antzerako batean, tasek, jaitsi beharrean, %3a baino gehiago igotzen dute? Honen inguruan ere ondo legoke azalpen bat jasotzea.

Beste puntu bat da legedian jasota dagoena baina betetzen ez dena, hau da, lurzoruen Euskal Legeak ezartzen ditu zertara zuzendu behar diren lurzoru-ondare publikoak. Uste dut nahiko argigarria dela irakurtzea bere horretan legeak esaten duena, bere 114. eta 115. artikuluetan. 114. artikuluan esaten du "la memoria explicativa de los


En primer lugar, estos presupuestos no cumplen el necesario equilibrio entre gasto e ingreso. En el apartado de gastos, no vemos que haya constancia de la amortización de un crédito de 3.563.230,96 euros aprobado en 2010. Se trata de un crédito aprobado, como decía, en 2010, pero que no ha sido utilizado, y este año toca devolver parte de dicha suma, concretamente 417.000 euros, de lo que no se hace constancia en el apartado de gastos, aunque, habiendo sido incluido en el apartado de ingresos de 2010, debería figurar en el apartado de gastos, pero no hay constancia de ello.

A la hora de elaborar el presupuesto, en primer lugar, se han considerado los gastos previstos para este ejercicio, en virtud de lo cual se han establecido los ingresos. Si vamos al apartado de los ingresos, vemos, por ejemplo, como en los impuestos directos se impone una subida del 5,65 %, ante lo cual esperábamos una explicación que no hemos recibido. Se han limitado a aplicar este incremento, y santas pascuas. Pero existen ciertos datos para saber si eso será así o no.

Este pasado viernes, se nos remitió el informe sobre la liquidación de 2012, donde queda reflejada la subida de los impuestos directos en lo que respecta a la regulación del periodo de 2008-2012; una subida que durante el ejercicio de 2011-2012 se fijó en un 2,11 %; lo cual nos lleva a preguntarnos por qué se ha establecido un incremento en los impuestos directos, esta vez del 5,65 %, habida cuenta de que este año los impuestos y tasas ya ha sufrido un incremento del 2 %. ¿A que se debe ese intervalo del 2 al 5 %? ¿Dónde radica la diferencia? Yo, por lo menos, necesito una aclaración.

Y qué decir de las tasas, que, según el informe que se nos ha transmitido, han sufrido un incremento del 3,80 % en 2013, cuando, observando los datos de la liquidación de 2012, vemos que de 2011 a 2012 se impuso una rebaja del 5,94 % en las mismas. Por tanto, ¿por qué ahora, siendo el contexto económico ciertamente similar, en vez de establecerse una rebaja en las tasas, se impone una subida de más del 5 %? Es algo que también requiere una explicación.

Otro aspecto a destacar es que se produce un incumplimiento de la ley, ya que la Ley Vasca del Suelo indica expresamente a qué debe ser destinado el patrimonio público de suelo. Creo que en este punto resulta ciertamente esclarecedor leer los artículos 114 y 115, ya que, por un lado, el artículo 114 establece que "la memoria explicativa de los presupuestos deberá preci-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

presupuestos deberá precisar que porcentajes mínimos de dicha cantidad se prevén para atender cada uno de los destinos de los patrimonios municipales de suelos". Joaten baldin bagara aurkeztutako memoriara ez dugu topatuko inon zein den bideratzen den diru-kopurua helburu hau betetzeko.

Baina 115. artikulua esaten du "los bienes predestinados a dotaciones públicas y de recursos integrantes de los patrimonios públicos de suelo, se destinarán preferentemente a la construcción de viviendas sometidas a algún régimen de protección pública, preferentemente, vivienda pública". Hori Durangon ez da sekula egin, eta aurkeztutako memoriara joatea besterik ez dago ikus-teko zeintzuk izan diren azken urtean lurzoru-ondare publikoarekin ordaindutako obrak, alegia: Tabirako futbol zelaia, Urki-Hegoalde lotura, bizi-kletentzako bide-gorria, Montevideo, Frai Juan Zumarragako errotonda, karkabak... Hemen ez dago etxebizitza publikoen arrastorik.

Hori da herri honetako errealitate bat: 1.500 etxebizitza hutsik dauden bitartean, 900 pertsona Etxebiden izena emanda dauden bitartean, guk lurzoru-ondare publikoetatik lortutako dirua beste gauza batzuetarako erabiltzen ditugu.

